

PRODUKTUAK KONTSULTATU, EROSI EDOTA GOMENDATZEKO AUKERA AURRERANTZEAN

www.katalogoa.org plazerrezko produktuen ataria

Durangoko Azoka egunotan zabalik, eguberriak ate joka... Urteroko hitzorduotarako balagarria izango zaigun euskal produktuen katalogoa kalean da jada. Papereko edizio 9.000 ale banatu dituz-

te Buruntzaldean. Baina noiznahi kontsulta liteke gida, www.katalogoa.org web orrialdean. Eguneratu, itxuraz berri eta edukiz indartu dute euskal produktuei eskaintako ataria.

Burua hausten denbora galtzea saihesteko erremedioa eskuratu duzu. Euskal Herriko berrehundik gora udalek euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute. Bertan dituzu bilduta merkaturatu dauden disko, liburu, joko, jostailu, aldizkari eta beste hainbat produktuen erreferentziak. Produktu berriak asko, eta interesgarriak denak, 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek aisialdiaz gozatzeko. Euskal Herri osoan zehar 240.000 ale banatu dira egunotan.

ORAIN PAPERAN ETA NOIZNAHI SAREAN

Papereko edizioak bereziki orain izango du bere balioa. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara doanarentzat, poltsikoan produktuen gida eraman eta errazago aurkituko ditu, kalitateko eta euskarazko jolas edota aldizkariak. Bestela, laster bisitatuko gaitu Olenzerok ere. Ikazkinari helarazi nahi dion eskaera zerrenda egiten ari direnentzat lagungarri suertatuko zaie gida. Eguberriak igarota ordea, urtean zehar, izaten da beste aitzakia mordoan opariren bat egiteko; urtebetetzeak direla, detailtxo bat egiteko arrazoiak... Paperekoak bere iraungitze data izan ohi du, ez ordea sareak. Euskal produktuen katalogoa plazaratu izan ohi dutenek, teknologia berriek emandako aukerak baliatu nahi izan dituzte web orria goitik behera berri eta eskaintza eguneratzeko. Hauxe, aurtengo berri-kuntza nagusia.

ARGIALETXEEN PARTE HARTZEA

Web orrialde berriua, elkarlaren emaitza izan bada prestakuntza fasean, aurrerantzean ere kudeaketa lanarekin gauza bera gertatuko da. Pasahitz baten bidez, euskal produktuak plazaratzeaz arduratzen diren



Liburuak, filmak, aldizkariak, joko eta jostailuak... Produktu sorta zabala blitzen du aurtengo katalogo berriak, aisialdia euskaraz primeran pasatzeko.

argialetxeek katalogoko edizio digitaletan dituzten produktuen berri informazioa zintzilikatu ahal izango dute, eta hartara, euskal produktuen katalogo web orria eguneratzen joango da.

Bospasei produktu berrienak "nobedadeak" izeneko atalean zintzilikatuko dituzte, web orriari sartu eta erabil-tzaileak berehalakoan ikus-tzan. Atari berriak atal dinamikoena izango da ziur aski, euskarazko produktuak kaleratu ahala, argialetxeek bertan erakusgai jarriko dituzte eta. Bestalde, produktu sorta zabala ezagutzeko aukera emango du aurrerantzean aipatu atari berriak. Produktu asko eta desberdinak izango direnez, bilaketa sistema erraza jarri dute erabil-tzaileentzat. Adin tarteak, prezioa, egilea, produktuen izena, produktu mota... modu askotara egin dezakezu bilketak.

"Internetek ematen dituen aukerak baliatu nahi izan dituzte web orria goitik behera berri eta eskaintza eguneratzeko"

GUSTUKOIA, GOMENDATU

Liburu, jostailu edo bestelako arteen, zalantzarik izan dezake edonork. Zerbait erosi nahi, baina ezin aukeratu, ez baitu produktua ezagutzen. Horri ere konponbidea aurkitu diote. Katalogoari lotutako web orrialde berriak iruzkinak egiteko aukera ematen du. Hartara, hautaketa egin baino lehen produktu bera erosi duten gainerako erabil-

tzaleen iritzi eta aholkuak ezagutu daitezke. Eta konbentzi-tuak bagaude erostera animatu, gauden lekutik mugitu ere egin gabe. Gustuko dugun produktuan klikatu eta zuzenean, bere argialetxeko web orrialdean sartuko gara, erosketa egiteko.

Modu tradizionala nahiago duenak, diru-zorroa patrikan sartu eta norbere herriko liburu dendaren batera joan liteke. Saltokira sartu baino lehen denda barruan euskal produkturik saltzen ote duten jakin ahal izango du. Egitasmo honetako eragileek iragarri dutenez, "hemen euskarazko produktuak salgai" dioten pegatinak banatzeko asmoa dute. Produktua erosi eta ezagututa, norbera jar liteke ordenagailu pantailaren aurrean eta euskal produktua epaitu; gustukoa ote duen, zergatik iruditzen zaion gomendagarria... Guztia web orrialdetik atera ere egin gabe.



HELBIDEA:
www.katalogoa.org
INFORMAZIO GEHIAGO:
info@katalogoa.org